

LOMLOE HEZKUNTZA LEGEKO 95. ARTIKULUAREN ERAGINA LANBIDE HEZIKETAN

Pasa den abenduan onartu zen LOMLOE legeak zalaparta sortu du Lanbide Heziketan. Eta ez da gutxiagorako. Izan ere, langileen lanerako baldintza eta aukerak moldatu eta errotik aldatzen ditu. Legearen aplikazioaren nolokotasuna zehaztu ez den arren, LAB irakaskuntzatik zenbait puntu eta eskari argi adierazi nahi dizkiegu EAEn hezkuntzaren eskuduntza duten Lakuako arduradunei:

1. Lanpostu zerrendetan ez dugu murrizketarik onartuko, ezta lanpostuen amortizaziorik ere.
2. Gaur egun irakasle funtzionarioen kidegoan dauden langileen baldintzetan, ezta ordezeko guztienetan ere, ez dugu atzera pausurik onetsiko.
3. Etorkizunean, Hezkuntza sailaren pean lanera gehituko diren irakasle tekniko berriek orain daudenen lan eta soldata baldintza berberak izan ditzatela exijitzen dugu.
4. Lan berdina burutuko duten balizko irakasle-mota ezberdinen arteko baldintza arrakalarik ez dugu onartuko.

Azken asteetan, bere ardurak Madrilgo agintarien gain kokatu nahi izan baditu ere, LABetik argi adierazi nahi dugu EAeko Hezkuntza Sailak erantzukizuna eta betebeharra dituela Lanbide Heziketako langileekiko. Hezkuntzatik sindikatu eta langileei zabaldu nahi izan zaigun lasaitasun mezuaren ginetik, emaitzaren jarraipen estua egingo dugu goian azaldutako lau puntu horiek errespetatu daitezkeen. Izan ere, Lanbide Heziketako irakasleek ematen diote EAeko Lanbide Heziketari mandatariek harrotasunez aldarrikatzen duten balio erantsia. Beraz, LOMLOEren aplikazioak kolektibo honen lan-egoeretan inolako kalterik eragin ez dezan lan egiteko eta Lanbide Heziketako irakasleei dagokien errekonozimendu eta begirunea lortzeko, negozio-bidean ekiteko ez ezik, mobilizatzeko prest gaude.

Bide batez, azpimarratu nahi dugu beste behin ere argi geratu dela hezkuntza-sistema burujabe baten beharra, eta bide horretan ere borrokan jarraituko dugu.